

ELKARBIZITZA IKASGAI

Kulturaren arteko elkartzearako proposamena

Mugarik gabeko
oporrak,
oztoporik gabeko
oporrak



Oporrak,
sortzeko garaia

UNITATE DIDAKTIKOA



Mugarik gabeko
oporrak,
oztoporik gabeko
oporrak



PASARTEA TESTUINGURURATZEN

- Argumentuaren laburpena _____ 4
- Sentsibilizaziorako lema nagusia _____ 4
- Unitate didaktikoaren ikuspegia _____ 4
- Helburuak _____ 5
- Hezkuntza eremu desberdinetarako orientabideak _____ 6

ARIKETAK

A

Sarrerarako eta sentsibilizaziorako ariketak

1. Gure jaiak _____ 10
2. Ideiak marraztu ____ 10

B

Pasartea aztertzeko ariketak

3. Iritzi orokorrak ____ 11
4. Pertsonaiak _____ 11
5. Harremanak eta erantzunak _____ 12
6. Amaiera _____ 13
7. Laguntza eskatzen eta ematen jakin _____ 13
8. Gehien eta gutxien gustatu zaiguna _____ 13
9. Istorioa berridatzi _____ 14

C

Gogoeta egiteko eta sakontzeko ariketak

10. Arazoei konponbidea ematen _____ 14
11. Jaien neurgailua ____ 15
12. Guztiontzako jaiak ____ 16
13. Munduko herrien jaiak ____ 16
14. Kulturen kanpaldia _____ 17

Aurkibidea



D

Hiztegi ariketak

€

Laburpen ariketak

Azken ariketak eta konpromisoa hartzeko ariketak

15. Gauzen izenak 18

16. Auzokako jaia _____ 19 _____

17. Pertsona guztien jaia _____ 19

Pasartea testuingururatzzen



Argumentuaren laburpena

Den-denak
pozik daude
oporrak

iritsiko direlako: Nereak loreen jaiaren parte hartu nahi du, Danik ez du ezertxo ere egin nahi eta Mikelek... Mikel gizagaixoa! Ikasi egin behar du, atzeratuta dabilenez, eskolako ikasgaiak errekuaratu behar dituelako. Guztiekin konpromisoa hartzen duenez, Nereari lagundu behar dio loreen jairako apaingarria egiten. Era berean, amari lagundu

behar dio erabilitako gauzen azokatxoan. Hainbat eta hainbat zeregin dituenaz, ez ditu inoiz guztiak betetzen.

Sentsibilizaziorako lema nagusia

“Mugarik gabeko oporrak,
hesirik gabeko oporrak”.

Unitate didaktikoaren ikuspegia

Unitate didaktikoaren ikuspegia
Herriko jaiak une ezin
egokiagoak dira, elkartasuna

eta elkarlana garatzeko.

Oporretan, jai ugari egiten dira eta behar-beharrezkoa da guztiok parte hartzea, ideiak gauzatu ahal izateko.

Era berean, guztion lankidetzan oinarritutako elkarbizitzarako une paregabeak dira oporrak. Ez da bidezkoa batzuek “nagikeriak jota” ezer ez egitea eta asmo onekoek euren irismenetik haratago doan konpromisoa hartzea.

Berbera gertatzen da aisialdi eta astialdi eremuetan; esate baterako, udalekuetan, kanpamentuetan eta udako jolas, atseden eta prestakuntza jardueretan.

...zenbait kulturatarako
pertsonei
ELKARREKIN
BIZITZEKO aukera
eskaintzen diguten
eremuak dira
oporrak.



Era berean, elkarbizitarako eremu paregabe horietan, lagun-taldean eta aisialdi-taldean elkartasunerako topaketak egin ahal dira. Zenbait kultura, herrialde, naziotasun, sentsibiltate, hizkuntzako... pertsonoi elkarrekin bizitzeko aukera eskaintzen diguten eremuak dira jaiak, oporretako jarduerak eta aisialdiko zein astialdiko jarduerak.

Opor ezin hobeak igarotzeko eta elkarrengandik askatasunez ikasteko apustu egokia da bestelako pertsonok hesirik gabe, mugarik gabe elkarrekin bizitzeko moduko eta betebeharrak akademikoetatik kanpoko elkarbizitza eta jai eremuak sortzea.

Helburuak **Helburu nagusia**

Jai eta opor eremua elkartasunerako, elkarrenganako laguntzarako eta hizkuntzaren, kulturaren, ohituren eta pertsonen arteko harremanen arloko kultura arteko esperientzien garapenerako esparrua dela onartu.

Hezkuntza helburuak eta helburu didaktikoak

1. Norberaren eta gainerakoen kulturako osagaiak (ohiturak, balioak, alderdi sozio-ekonomikoak, ezartzen diren harreman-motak...) eta kulturaren elkarreraginak ezagutu eta modu kritikoan balioetsi.
2. Zenbait esperientzia-arlotatik arazoak konpontzeko trebetasunak eskuratu.
3. Pertsonen arteko arazoak konpondu, eta, horretarako, arazoaren ezagutza eta arrazoiak sakondu.
4. Norberaren nortasuna eta buru-estimua garatu eta taldea errespetatu.
5. Beste pertsona batzuen ekarpenen aurrean, malgutasunez jokatu eta pertsona horiek ezagutu eta euren balioak ezagutzeko gogoia erakutsi.
6. Taldeko jardueretan elkartasuna eta lankidetzak erakutsi.
7. Taldearen eta pertsonen arazoak konpontzeko interesa erakutsi, eta, horretarako, arazoak konpontzeko sormen eta jai osagaiak sortu.





Orientaciones para los distintos ámbitos educativos

Familia: familiako eta herriko
jaiak eta oporrak
komunikaziorako, sormenerako,
elkartasunerako eta
elkarrenganako laguntzarako

eremu paregabeak dira. Jaietan, familia lotuago dago, hesiak desagertu egiten dira, elkartasuna nagusi da eta sentimenduek gainezka egiten dute.

Etxeke pasabidean ibiliko bagina bezala igaro ahal naiz lekuetatik neure familiarekin, edo bestela, beste leku batzuetan bizi diren beste pertsona batzuk ezagutzeko aukera izan ahal dut.

Komunikatzea lortzen badugu, jai-adierazpenak besteekin gozatu eta ondo balioetsi behar ditugu. Gure ingurukoekin erreferentziak bilatu eta, funtsean, bere bizitzako oinarritzko gertaerak gizakiak berak ospatzen dituela jakin behar dugu: bizia, heriotza, urtarokak, uzta...

...beste leku batzuetan
bizi diren **BESTE**
PERTSONA BATZUK
EZAGUTZEKO aukera
izan ahal dut.

Era berean, elkarizketa informalean bidez aztertu ahal dugu nolako pertsonen lan egiten duten oporraldietako ostalaritzan. Horrez gain, kontsumitzaile moduan ditugun ustezko eskubideetatik haratago, ulerkorrak eta solidarioak izan behar dugu.

Eskola: eskolak herriko edo auzoko jaien berri eman ohi du. Halaber, udalekuetako eta ingurumen-saiakuntzako zentroetako egonaldiak sustatu ohi ditu edo trukeak antolatzen ditu. Esperientzia horien ikuspegia kultura artekoa denez, ume guztiek parte hartu ahal dute jarduera horietan, euren jatorria, erlijioa edo kultura edozein dela ere.

Nolanahi ere, oso interesgarria da kulturen artean sortu ahal diren arazoen konponbidea sustatzea, edukien eta esanahiaren gaineko adostasuna lortuz gero. Horretarako, garrantzitsua da kulturen antzeko osagaiak azalaraztea, alaitasuna adierazteko, jai jakin batzuen esanahia zein den jakiteko eta kulturek nolako parekotasunak dituzten jakiteko.



Aisialdia: aisialdirako elkarteek berebiziko garrantzia dute jaietan. Egia esan, astialdiak berak jaia, jolasa... ditu oinarri. Dena dela, horrek ez du esan nahi beti parrandan dabilzanik, jardueren amaiera ulergarria jaia bera eta topaketaren, adiskidetasunaren, elkartasunaren... ospakizuna direla baizik.

Hezkuntzako esperientzien eremu paregabe horrek kultura arteko ikuspegiaren eta esperientzien zein kulturen trukearen bidez jorratutako jaia du ezaugarri bereizgarri.

**Jaia KULTURA
ARTEKO ikuspegiaren
eta esperientzien
trukearen bidez
jorratu.**

Izan ere, zenbait eremu antolatu ahal ditugu, bestelako kulturez goatzeko, giroak dekoratuen, musiken, abestien, mozarroen... bidez birsortzeko esperientziak garatzeko, gainerako kulturen eta gure kulturaren osagai garrantzitsuak onartzeko.

Ahalegina egin ahal dugu festa erakargarri bezain ederrak, afektibitate-hesirik gabeko jaiak, kultura-hesirik gabeko jaiak, hesi fisikorik gabeko jaiak egiteko. Bertan, edozein herri, kultura edo mailatako pertsonak euren lekua izango dute eta eroso egongo dira.

ESKOLA. Curriculum eremua

Tutoretza

1. Gure jaiak _____ 10
3. Iritzi orokorrak ____ 11
4. Pertsonaiak _____ 11
5. Harremanak eta erantzunak _____ 12
6. Amaiera _____ 13
8. Gehien eta gutxien gustatu zaiguna _____ 13

Hizkuntza

2. Ideiak marraztu ____ 10
3. Iritzi orokorrak ____ 11
7. Laguntza eskatzen eta ematen jakin _____ 13
9. Istorioa berridatzi _____ 14
10. Arazoei konponbidea ematen _____ 14
15. Gauzen izenak ____ 18
17. Pertsona guztien jaia _____ 19

Ingurunearen ezagutza

10. Arazoei konponbidea ematen _____ 14
11. Jaien neurgailua ____ 15
12. Guztiontzako jaia ____ 16
13. Munduko herrien jaia _____ 16
14. Kulturen kanpaldia _____ 17
15. Gauzen izenak ____ 18
16. Auzokako jaia ____ 19
17. Pertsona guztien jaia _____ 19

AIÑALDI HEZIGARRIA. Tipologia

Soziodramatikoak

14. Kulturen kanpaldia _____ 17
16. Auzokako jaia ____ 19

Kreatiboak

1. Gure jaiak _____ 10
2. Ideiak marraztu ____ 10
7. Laguntza eskatzen eta ematen jakin _____ 13
12. Guztiontzako jaia _____ 16
13. Munduko herrien jaia _____ 16
14. Kulturen kanpaldia _____ 17
15. Gauzen izenak ____ 18
16. Auzokako jaia ____ 19
17. Pertsona guztien jaia _____ 19

Talde eraikuntza

11. Jaien neurgailua ____ 15
13. Munduko herrien jaia _____ 16
14. Kulturen kanpaldia _____ 17
15. Gauzen izenak ____ 18
16. Auzokako jaia ____ 19

Ariketak



Kooperatiboak

- 3. Iritzi orokorrak ____ 11
- 4. Pertsonaiak ____ 11
- 5. Harremanak eta erantzunak ____ 12
- 6. Amaiera ____ 13
- 10. Arazoei konponbidea ematen ____ 14
- 11. Jaien neurgailua ____ 15
- 12. Guztiontzako jaia ____ 16
- 14. Kulturen kanpaldia ____ 17

Harremanak bultzatzekoak

- 3. Iritzi orokorrak ____ 11
- 4. Pertsonaiak ____ 11
- 5. Harremanak eta erantzunak ____ 12
- 6. Amaiera ____ 13
- 7. Laguntza eskatzen eta ematen jakin ____ 13
- 8. Gehien eta gutxien gustatu zaiguna ____ 13
- 10. Arazoei konponbidea ematen ____ 14

Jai eta jardunaldiak

- 12. Una fiesta para todos y todas ____ 16



A

Sarrerarako eta
sentsibilizaziorako ariketak

1. ariketa ~ "Gure jaiak"

Saioaren hasieran, bertan parte hartu dutela-eta ezagutzen dituzten jai guztiak aipatzeko eskatuko diegu, euren auzokoak, herrikoak, autonomia erkidegokoak edo herrialdekoak izan nahi ez izan.

Ondoren, telebistaren, aldizkariaren, pertsona ezagunen azalpenen... bidez ezagututako jaiak bilduko ditugu.

Era berean, atzerriko neska-mutikoei jakitera eman ahal dizkiguten beste herrialde, herri edo kultura... batzuetako jaiak bilduko ditugu.

Jaiak arbelean idatzi eta labur-labur azalduko ditugu.

2. ariketa ~ "Ideiak marraztu"

Marrazki bidez adierazitako ideia landuko dugu taldeka, eta, ondoren, horri buruz eztabaidatuko dugu.

Materiaia: ariketa hau eremu zabal batean garatuko dugu. Aulki bana beharko dugu. Horrez gain, kartoi meheak edo paper zabala eta koloretako margoak (errotuladoreak, egurrezko arkatzak, argizariak...) erabiliko ditugu.

Hasierako arauak: taldeak hitz egiteko txanda gorde beharko du eta taldekide guztiek parte hartuko dute.

Garapena: biribilean jarri eta egoera azalduko diegu. Erresuma batean bizi gara eta erregeak udaberriaren etorrera ospatzeko jaia egin nahi du. Dena dela, ez du ideia berririk. Hori dela eta, herriari eskatu dio laguntzeko. Egoera azaldukoan, bosna lagunek taldeak antolatu honako maila hauen arabera: herriko adinekoak, gizonak, emakumeak, umeak eta animaliak. Taldeek guztientzako paper zabalean adieraziko dute euren ideia, erresuman duten zeregina kontuan hartuta. Jokoa aldatu egin daiteke eta kulturen arabera banatu ahal ditugu taldeak. Era berean, bestelako jaiak aukeratu ahal ditugu, bestelako errealitate kulturalen arabera.



B

Hasarteaz azeritako ariketak

3. ariketa ~ "Iritzi orokorrak"

Lehenengo iritziak: pelikula ikusi ondoren, taldean sortzen diren lehenengo iritziak jasoko ditugu inolako antolamendurik gabe. Zer iradoki digu? Zer esan digu?

Iritzi orokorra: taldearen bat-bateko iritzia bilduko dugu.

Argumentuaren laburpena: orain, argumentuaren laburpena egingo dugu. Fase hau oso garrantzitsua da, taldeak ikusitakoaren ikuspegi erkidea adieraz dezan.

4. ariketa ~ "Pertsonaiak"

Parte hartzen duten pertsonaien ezaugarriak adieraziko ditugu. Lehenengo eta behin, pertsonaiak nortzuk diren azalduko dugu, nolako ezaugarri fisikoak dituzten, zer ezaugarri dituen euren nortasunak, zeintzuk diren euren jokabidearen alderdi nabarmenenak.

Pertsonaia	Nolakoa da?	Zer jokabide dauka?	Zer iruditzen zaio Mikel?	Zer iruditzen zaio Josu?	Zer deritzozu jokabide horri?
Mikel					
Nerea					
Elena					
Juanjo					
Josu					
Dani					
Josuren ama					
Daniren ama					
Inakaslea					

Amaitutakoan, horma-irudi handia egingo dugu, eta talde osoaren iritziak jasoko ditugu bertan.



5. ariketa ~ "Harremanak eta erantzunak"

Pertsonaiek oporren aurrean duten jarrera antzemango dugu.

Pertsonaia	Oporretako plana
Mikel	
Nerea	
Elena	
Juanjo	
Josu	
Dani	
Josuren ama	
Daniren ama	
Irakaslea	

Ikuspegi horretatik, zer gertatzen den eta zergatik aztertuko dugu. "Lore-saltzaileen desfilearen" eta "garajeko salmentaren" esanahian sakonduko dugu (15. ariketa).

Mikelek dituen arazoak azaldu ahal ditugu? Zergatik iritsi da egoera horretara?

Zer jokabide du Mikelek bere arazoen aurrean? Noren laguntza du? Nolako presioak ditu?

Zer deritzozu Danik egoeren aurrean duen jokabideari? Izan ere, badiudi "ezer ez egin" araua bete beste helbururik ez duela oporretan.

Zer deritzozu Elenaren eta Nerearen jokabideari? Beste pasarte batzuei esker Nereari buruz dakizuna eta pasarte honetan zehazten dena kontuan hartuta, nola azalduko zenuke Nerea, itsua dela esateaz gain?


Laguntza eskatzen dakien umea da Mikel?

Nola azalduko zenuke Josu anaiaren jarrera? Lagundu egiten du?

Zer esan ahal dugu Daniren eta amaren eta Mikeleren eta amaren arteko harremanari buruz?

Azkenean, nola antolatzen dira gauzak? Nork egiten du zer?

Nola konpontzen da Nerearen eta Elenaren arteko arazoa?





6. ariketa ~ "Amaiera"

Zein da pertsonaien jokabidea pasartearen amaieran?

Pertsonaia	Zer jokabide dauka?	Zergatik?	Zer esango zenioke?
Mikel			
Nerea			
Elena			
Juanjo			
Josu			
Dani			
Josuren ama			
Daniren ama			

7. ariketa ~ "Laguntza eskatzen eta ematen jakin"

Askotan, ez dakigu laguntza eskatzen eta ematen. Laguntza eskatu behar badugu ere, zer egoeratan ez dugun eskatzen aztertuko dugu eta nola eman ahal diogun laguntza beste pertsona bati lagundu egiten diogula esan gabe.

Zer egoeratan eskatu beharko nuke laguntza eta ez dut eskatzen?	Nola lagundu ahal izango nuke horrelako egoeretan, nire esku balego?

8. ariketa ~ "Gehien eta gutxien gustatu zaiguna"

Pasarteko alderdi balioetsienak nabarmenduko ditugu.

Gehien gustatu zaidana	Gutxien gustatu zaidana

Ondoren, aztergai dugun gaiarekin zerikusia duten osagaiak aipatuko ditugu: desberdintasunean berdin.



9. ariketa ~ "Istoriaa berridatziz"

Loreen jaia eta Lore-saltzaileen desfilea eramango ditugu geure errealtaterara eta historiaa berridatziko dugu, Inauteriak edo beste jai bat kontuan hartuta.

C Gogoeta egiteko eta sakontzeko ariketak

10. ariketa ~ "Arazoei konponbidea ematen"

Mikelek gainezka egin du, konpromiso gehiegi dituelako. Errekuperatzeko ariketak egin behar ditu, amari lagundu behar dio "garajeko salmentan", Elenari edo Nereari lagundu behar die aulkitxoa egiten... Estuasun horiek guztiek eragin zuzena dute osasunean eta aurreikusitako guztia zapuztu ahal dute.

Bere egoera negargarria denez, ez ditu gauzak argi ikusten eta ezin du ezer antolatu, zeregin guztiak egiteko eta konpromiso guztiak behar bezala eta eraginkortasunez betetzeko.

Zer egingo zenuke, Mikel izango bazina?

Lehenengo eta behin egingo nukeena	
Bigarren egingo nukeena	
Hirugarren egingo nukeena	
Laugarren egingo nukeena	

Arazoen antolamenduaren logika, konponbide erabilgarriak bilatzeko:

1. Estutzen nauten arazoak ditudala onartu.
2. Garrantziaren arabera sailkatu.
3. Garrantzi gutxien duten arazoak zeintzuk diren eta nola konpondu ahal ditudan adierazi.
4. Arazo larrienak konpontzen ahalegindu eta horretarako laguntzarik behar dudana eta nork eman ahal didan pentsatu.





Lau abiaburu horiek ezarriko ditugu Mikeleren egoeran:

ARAZOAK	IRIZPIDEAK	KONPONBIDEAK
	Estutzen nauden arazoak ditudala onartu.	
	Garrantziaren arabera sailkatu.	
	Garrantzi gutxien duten arazoak zeintzuk diren eta nola konpondu ahal ditudan adierazi.	
	Arazo larrienak konpontzen ahalegindu eta horretarako laguntzarik behar duzan eta nork eman ahal didan pentsatu.	

11. ariketa ~ "Jaien neurgailua"

"Jaien neurgailua" asmatuko dugu. Aukeratutako jaietan, jende zehatzaren partaidetza-maila zehaztuko dugu. 0 gutxieneko adierazlea izango da; eta 3, gehieneko adierazlea.

Adinekoak	0	1	2	3
Umeak	0	1	2	3
Gazteak	0	1	2	3
Loreak saltzen dituzten txinatarrak	0	1	2	3
Kalean arropa saltzen duten latinoamerikarrak	0	1	2	3
Familiak	0	1	2	3
Kalean zehar objektuak saltzen dituzten beltzak	0	1	2	3
Alfonbrak saltzen dituzten marokoarrak	0	1	2	3
Turistak	0	1	2	3
Itsua edo gorra	0	1	2	3
Arropa saltzen duten amekin doazen umeak	0	1	2	3
Udaleko zinegotziak	0	1	2	3
Gurpil-aulkian doan elbarri fisikoa	0	1	2	3

"Jaien neurgailuari" esker, mapa bat egingo dugu, eta, bertan, jaietan nortzuek pasatzen duten ondo eta nortzuek ez duten hain ondo pasatzen adieraziko dugu.

Datuok kontuan hartuta, nolako hausnarketa egin behar duzu?





12. ariketa ~ "Guztientzako jaia"

Orain, jai bat asmatuko dugu, eta guztiek euren lekua izango dute bertan. Honako hau hartuko dugu kontuan:

Jaiaren arrazoia	
Norentzat	
Zeintzuk izango dira osagaiak?	
Nola alaituko da giroa?	
Doakoa izango da ala ordaindu egin beharko da?	
Mozorroak, musika eta koloreak egongo dira?	

13. ariketa ~ "Munduko herrien jaia"

Ezagutzen ditugun kultura guztientzako moduko jaia antolatuko dugu, kultura horietako pertsonak daudelako gure ingurunean, auzoan, eskolan...

Txosnak eraiki: taldeek txosna bana eraiki beharko dute. Oso oso erraza da txosnak eraikitzea. Zuhaitz edo zutoin bi edo gehiagoren artean, soken bidez mugarrituko duzue zeuen txosnaren eremua. Soketatik, paperak eseki ahal dituzue estaltzeko. Era berean, elkarren artean lotutako zaborretarako poltsez egindako teilatua jarri ahal duzue. Txosna guztien eraikuntza bestelakoa izango da, eskura dituzuen osagaiak hartu beharko dituzuelako kontuan. Txosnek herri, kultura edo etnia bana ordezkatzeko dute, eta osagai bereizgarriak izango dituzte apaingarri.

Taldeak askotarikoak izango dira, hau da, etorkinek eta bertakoek osatuko dituzte. Dena dela, kanpokoak izango dira zuzendariak, eta euren sorterriko jokoak, ohiko janariak, jantziak, mozzorroak, abestiak... ekarriko dituzte.

Jokoa: taldeek joko bana asmatu eta eraiki beharko dute, eta jokook bestelakoak izan beharko dira. Gauza asko eta asko egin ahal dituzue: patora jaurti, uztaiak sartu zenbait iltzetan, pilota bat sartu panpina baten ahotik, arraina harrapatu, uztaia kable batetik pasatu kablea ukitu gabe, igela eta beste hainbeste herri-joko. Batzuk munduko zenbait txokotan egiten dira.

Jokoa txosnan bertan egongo da. Txosnari izena jarri eta modu dibertigarrian apainduko duzue.



Antolamendua: puntudun txartelak prestatu beharko dira, jokoetako irabazleei emateko. Txartel horien bidez, zuek egindako opariak jaso ahal izango dituzte.

Gurasoak engaiatzeko unea egokia da.

Kartelen, eskuko liburuxken eta “ahoa-belarria” eraginkorraren bidez eman beharko da jaiaren berri.

Amaieran, lankidetzarako askaria egin daiteke, eta, bertan, ordezkaturako herrialdeetako ohiko dantzak dantzatu ahal dira, abestiak kantatu ahal dira...

14. ariketa ~ "Kulturen kanpaldia"

Txangoak, udalekuak eta kanpaldiak oso egokiak izan daitezke, zenbait kulturatan oinarritutako elkarbizitza-eremua eraikitzeko. Esate baterako, masaien herrixkan, indioen kokagunean, arabiarren azokan, sahararren jaiman... oinarritutako kanpaldia. Horretarako, kultura hori ezagutu beharko da aldeztu aurretik, eta irudikatzeko eta bete-betean bizitzeko ahalegina egin beharko da.

Aldi berean, geure kulturarekin jarriko dugu harremanetan, eta zer ekarpen egin ahal diguten eta zer ekarpen egin ahal diegun aztertuko dugu.

Hona hemen ondorioa: badaukagu elkarrekin bizitzerik, geure burua ez ezik, gainerako pertsonak ere errespetatzen baditugu.





D

Hiztegi ariketak

15. ariketa ~ "Gauzen izenak"

Loreen jaia eta Lore-saltzaileen desfilea Medellín (Kolonbia): Kolonbian egiten da uztailaren amaieran edo abuztuaren hasieran. 1957ko jaia da. Izan ere, urte horretan bertan hasi zen Lore-saltzaileen desfilea. Bertan, 40 nekazarik parte hartu zuten.

Aulkitxoak nekazarien asmakizuna dira. Egurrez eginda zeuden eta bizkarraldea eta bi helduleku zituzten, sorbaldetatik eseki ahal izateko. Eurei esker, lore ugari zamatuta ahal zituzten. Garai kolonialean erabiltzen zituzten, pertsonak Antioquíako mendi aldapatsuetan zehar garraiatzeko.

Aulkitxoaren erabilera nagusitu egin zen, eta aulki-eroalea hitza sortu zen, XX. mendearen hasieran Medellínko kaleetan loreak saltzen zituzten pertsonen izena emateko.

Garajeko salmenta: azokatxo, bazarra, enkantea, azoka txikia ere esaten zaio. Bertan, familiek traste zaharrak saltzen dituzte. Batzuetan, etxeko atean, garajeetan, patioan edo kalean jartzen dituzte salgai.

Beste batzuetan, ordea, zenbait etxetako traste zaharrak bildu eta elkartasunerako azokatxo handiagoa egiten da. Dena dela, "garajeko salmenta" da ohiko izena.



Laburpen ariketak

16. ariketa ~ "Auzokako jaia"

Pasarte honetan landutakoaren alderdi nabarmenenak aipatuko ditugu.

Berririo helduko diogu unitatearen lema nagusiari:

"Mugarik gabeko oporrak, hesirik gabeko oporrak".

Zer adierazten digu orain? Zer esanahi du orain, hausnarketak egin ondoren?

Nola antolatu guztiontzako jaia, inolako salbuespenik egin gabe?

Nola eraiki guztiontzako gizartea, inolako mugarik jarri gabe?



Azken ariketak eta konpromisoa hartzeko ariketak

17. ariketa ~ "Pertsona guztien jaia"

Hona hemen guztiontzako gizartearen eraikuntzari buruzko hausnarketaren amaiera.

Helburua ez da taldearentzako jai txiki berezia egitea, aurrean azaldutako kulturen jai handia antolatzea baizik. Aberastasun handikoa, jai-giro alaiakoa, oso herrikoia, kultura artekoa, inorentzako mugarik gabekoa izango da jaia. Bertan, zailtasun gehien dituzten pertsonak izango dira gonbidatu nagusiak.

Mugarik gabeko jaiak, hesirik gabeko jaiak, pertsona guztientzako gizartea eraikitzeko.

© EDEX, 2003

Egileak:

Rafael Mendieta eta Roberto Flores

Argitaratzailea:

EDEX

 Particular de Indautxu, 9. 48011 - Bilbao

 94 442 57 84  94 441 75 12

 edex@edex.es

 www.edex.es

ISBN:

84-9726-152-6

Obra osoaren ISBN: 84-9726-145-3

Lege gordailua: BI-3005-03

Mod.: 164650

© Edizio honen eskubide guztiak EDEXenak dira, eta bere idatzizko baimena aldez aurretik izan gabe, ez dago lana oso-osorik edo zatika kopiatzerik.

"Gizalegezko kultura partekaturantz doan
eta gizakiaren eskubideetan oinarrituta
dagoen hezkuntzak soilik saihestuko du
desberdintasunek diferentziak sortzea, eta
berezitasunek etsaitasuna ekartzea."

Rodolfo Stavenhagen.

"Hezkuntzak altxorra dauka barruan".

DELORS TXOSTENA. UNESCO

Ekimenaren arduraduna:



Particular de Indautxu, 9
48011 Bilbao
www.edex.es • edex@edex.es

Kolaboratzailea:



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ETXEBIZITZA ETA GIZARTE
GAIETAKO SAILA
Inmigrazio Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y
ASUNTOS SOCIALES
Dirección de Inmigración

